



CC 00  
Kutzabank  
atal  
sindikala

Gurekin kontaktatu

94 4017024  
943 001425  
945 162455

[ccoo@kutzabank.es](mailto:ccoo@kutzabank.es)  
[kutzabank@servicios.ccoo.es](mailto:kutzabank@servicios.ccoo.es)

Zk. 44 2017ko otsaila

<http://www.ccoo-servicios.es/kutzabank/>

# “Lehenengoz” larregi!



Hotz bolada gogorren hasi arren, 2017. urtea bero-bero dator. Bai behintzat hitzarmenaren negoziazioari dagokionez. Enpresak egindako salaketak geure artean sortu zizkigun sentrazio txarrak plataformaren aurkezpenarekin batera guztiz konfirmatu ziren.

Izan ere “*lehenengoz*” asko izan dira elkarren segidan: *lehenengoz* enpresak hitzarmena salatu duela; *lehenengoz* ez duela akordio laborala berriztatu; *lehenengoz* azalpen barik foroak zarratu egin dituela; *lehenengoz* alde bakarretik aurrejubilazioak inposatu dituela; *lehenengoz* negoziazio mahaitik altxatu dela,...

Kutzabankeko lan harremanen eredia errotik aldatu da. Banku bihurtuta eta lan erreformaren babesean, zuzendaritzak sindikatuarekin egin beharreko negoziazioan bere baldintzak inposatu nahi ditu: edo beherantz negoziatu, edo bertan behera utzi.

Aurrejubilazio-planerako alde bakarreko eskaintza, akordioa bilatu ere egin barik, argi uzten du norantz jo nahi duten. 2015eko amaieran sinatutako azken akordio laboralean ia-ia ez negoziatzeko plantak ikusi genituen. Asko ekin genion zuzendaritzakoek ulertzeko enpresa honetan neurri honetako plan batek ezin egon handia sortuko zuela plantillakoen artean, baldin eta adostu barik bultzatu nahi bazuten. Oraingo honetan, jesartzeko aukerarik ere ez dugu izan.



Egoera hau hitzarmen kolektiboaren negoziazioan bertan ere islatu izan da. Lehenengotik bat-batean, blokeoa. Enpresa-plataforma aurkeztu eta gero, zer/zenbaterako eman lezakeen ikusi nahi izan dugu eta horretarako batzar bat egin da lan-jarduera eta etekin sozialak izeneko kapituluak aztertzeko. Tira ba, esanda daukagu zein den euren asmoa, labur esateko *“gutxiagorekin gehiago”* esaldiak adierazten duena, alegia: lan gehiago, etekin sozial gutxiagorekin.



## Lan gehiago, soldata gutxiago\*

*\*Presidentziarako eta Administrazio-Kontseiluako izan ezik*

Gure presidentez ezer esatekotan -derrigorrean ez alde positiboan-, esan beharra dago bere sarreran esandakoarekin bat egin duela osoan: *“gutxiagorekin gehiago egingo dugu”*. Edo hain era desegokian *“gorriak ikusiko ditugula”* esaterakoan. Kutxabanken utzi nahi omen duen legatua gero eta argiago ikusten dugu: balantzean onbideratutako bankua, plantilla eskasa daukana, eta bere sarreran baino baldintza txarragoetan dagoena. Motibazioa galtzea zabal dabil Kutxabanken, *“horrek ez dio ardura berari”*.

Horrela hitzarmenaren negoziazioa arin baino arinago eten da. Adostasuna zail ikusten den ataletan negoziatzeari utziko diogu, eta beste batzuk arretaz aztertuko ditugu? Lanbide-karrerak? Lan sorrera? Ba ezetz, erantzuna beti *“gutxi gora behera”* izaten da.

Ezinezkoa da negoziatzen jesartzea beste aldeak puntu guztietan murrizketak egiteko exijitzen duenean. Sektorearen egoera aitzakiatzat hartzeak ez digu balio. Antzinako kutxetan, orain Kutxabanken, beti izan gara desberdinak banka guztiaren aldean, geure bide propioa jorratu izan dugulako, eta antza denez, ez zaigu hain txarto joan.

CCOO sindikatuan ardura ematen digu entitatearen balantzeak zein plantilaren egoerak. Baina bada zuzendaritzatik urruntzen gaituen arloa: helburuak ez ditu baliabideak justifikatzen. Enpresa sendoa eta kaudimenduan nahi dugu, baina plantilla motibatuarekin lan-baldintzak errespetuz gordeta dituen. Gerora begira, oinarritzko zutabeak dira hauek, euretariko bata /bestea kenduta ez dago etorkizunik. Gero eta gehiago halako susmoa daukagu persona batzuen ustez bankuaren etorkizuna urte batzuetako kontua baino ez dela. Plantillaren ustez, beste kontu bat da... denbora luzeagorako egongo gara bertan.

CCOO



Eta orain zer egin dezakegu hitzarmenaren negoziazioa trabatuta daukagula? Edonondik begituta ere, ez dago besterik: plantillaren batasuna erakutsi behar dugu beharrezkoak ez diren neurrien aurrean. Enpresak argi eduki behar du CCOO sindikatuak ez duela sinatuko eraispen-hitzarmena, eta zuzendaritzari ez badio ardura Kutxabank gizarte-istiludun enpresen artean sartzeko, erantzukizuna euren izango da. Gero ez dezatela eska plantillaren inplikazioa etekinak lortzeko, gure interesera ekarri ezean.

Hori dela-eta, gogoeta egin dezatela espero dezagun, eta kontura daitezen oraingoa ez dela lan-baldintzetan murrizketak ezartzeko unea. Ez dira behar, eta ez dute balio izango enpresaren helburuak lortzeko.

Jakina, plantillari gehiago exijituko bazaio,

**gutxiagorekin ezin izango da!**

## Gutxiengo horiek...



Bukatu egin da indarraldian dagoen akordioaren lasaitasuna, nahiz eta hau erlatiboa izan, edozein momentutan ebatzi behar direlako sorturiko arazoak. CCOO sindikatuak sinatutako akordioak, eguneroko lana erraztu izan dutenak bapatean amaitu dira. Guztiak aldi berean bertan behera geratu dira.

Sorturiko hutsunea berriz betetzea alde guztiei – enpresari zein langileei- interesatzen zaie. Biak ala biak: akordio laborala eta hitzarmen kolektiboa. Entitatea ez dago lehena berriztearen alde, eta gaztetzearen gaiari dagokionez, bere kontura joatea erabaki du, baldintzen beharpenaren bidetik, alegia. Ez gara ideia horren aldekoak, gure ustez akordioaren bidea izan behar delako jarraitu beharrekoa, baina ikusiko dugu non eta nola geratzen garen.

Beste alde batetik, hitzarmen kolektiboan gauza gehiago daude jokoan. Plantilla osoari eragiten dio. Ez gara ari bakarrik aurrejubilazioez, etenaldiez eta jardunaldiaren murrizketez, bertan lortzea hainbeste kostatu eta mantentzeko hain zailak diren baldintza laboralak ere badaude tartean.

Hitzarmenean bertan indar sindikal bakoitzaren ordezkariak eta bere indarraren erabilerak garrantzia hartzen du. CCOO sindikatuan dagokigun erantzukizuna onartzen dugun bitartean, beste batzuek lasaitasuna opatu egiten diote euren buruari trankil asko.

**Lan-Hitzarmenak ez du erraz ematen.**

**Enpresak etsi egin du**

**CCOO**

	Ordezkariek	%
CCOO	51	35,92
ELA	31	21,83
PK	25	17,61
LAB	21	14,79
ALE	10	7,04
ASPEM	3	2,11
ASPRO	1	0,7

Ordezkaritzaren %7,04 minoritario batek ematen duen lasaitasunetik, halako talde batek aldarrikatzen du "ez duela sinatuko bankuko **oraingo plantillaren** kalterako den ezer". Nabarmendu nahi dugu oraingo plantilla, izan ere arrazoizko zalantza bat daukagu: zer gertatuko da etorkizunekoekin, sartuko diren berriekin? Talde honek ozenki aldarrikatzen du, ez dela ezer gertatzen hitzarmenaren indarraldia behin betiko bukatzeagatik. Hipotetikoki gaur egungo plantilla kaltetua egon ez arren, oraindik ikusteko dagoena, etorkizunekoak ez luke Kutxabank hitzarmena edukiko. Ziur ere ziur!



## Hau da emanaldiaren deskalabrua!

%0,70aren eszenaratzea beste kontu bat da. Esan ere badiote 10 puntuko plataforma bat dutela hitzarmen baterako (Kutxabank taldea = Kutxabank + Cajasur), negoziatzen ez dena eta mahai gainean defendatzeko moduan ez dagoena, bere portzentajeak ez dielako horretarako aukera ematen. Hori bai, estrategia hortxe geratzen da: Aurrera egiten badu, beraiek proposatu dutelako izango da; holan ez bada, beste batzuek ez dutelako defendatuko izango da. Horrela ez da izango, baina horixe izango da esango dutena.

Esanguratsuagoa da %14,79 baina dela dela, berdin-berdin. Talde honek, ez du hitzarmena sinatutako beste barik "bertokoa" ez delako, eta gainera "txanda-pasa" erakusten du, geroago aldarrikatzeko mahaiian daudela ikusle hutsak direla-eta, eta Kutxabanke sarrera-maila merkeagoa baino ez duela bilatu nahi. Ez die buruko minik ematen jardunaldian orduak luzatu nahi dituztela, gizarte-etekinak gutxitu nahi dituztela, ... Baina, horixe baietz... ikusle hutsak izaten jarraitzen dute!

## Enpresak lerro gorri larregi ezarri ditu

Enpresa-plataformaren erre usaina bistan dago, bere proposamena k zentzugabekeriaren marra ez badute igaro dagoeneko zentzubakoak direlako da. Bere helburuetako bat badakigu sarrera-maila dela, baina ekin nahi diote ordu-emia handitzeari eta hitzarmenaren beste atal batzuk murrizteari. Kontua da, nola aurre egin eskari hauei. Hitzarmena bertan behera geratu arte pasatzen uzten badugu, zein baldintzatan sartuko dira langile berriak?



Gure zorionerako, hitzarmena aurrera ateratzea ez dago talde hauen mende. Bai, oso gerrazaleak dira euren oharretan, baina mahaian beste gauza bat da: entzun, ikusi eta isilik egoten dira. Azkenean bat egin dezakete, edo akaso ez, eta eginez gero, euren meritua balitz bezala saldu egingo dute, baina euren sinadura ongietorriko gehigarria baino ez da izango, eta ez ezinbestekoa.

Gauzak horrela, erantzukizuna betikoena izango da, erronkari aurre egiteko behar den besteko indarra daukagunona. Eta hau guztiau era onean -hori ere ikusteko dagoenaburutuko dela pentsatuz gero, ardura gabe ibili diren talde hauek beste edonor baino seguruago agertuko dira, Barru-barruan bare sentitu arren, kanpora begirako mezua muturreko beligerantziaren bidez emango dute. Ez da ezer berririk: bizi izan dugu, beti berdin.



***Zuk irabazten duzu***

# Soberan prest

Kurtsoak, ikastaroak, prestakuntza jardunaldiak... joan garen edo egin ditugun guztietan pentsatzen hasiz gero, zerrenda zera baino luzeagoa izango litzateke, konturatuko ginateke gure curriculuma aski onargarria dala: oso prestakuntza ona daukagu, formakuntzari dagokionez lehen-lehen mailan gaude!

Danok dakigu produktu bat arrakastaz saldu nahi badugu oso ondo ezagutu behar dugula. Gainera horretan bete beharreko deontologia-kode bat daukagula. Bruselatik ezarritako arautze eskakizun zorrotzak ezagutzen ditugu. Primerako profesionalak garela-eta, jakin badakigu horregatik aparteko prestakuntza behar dugula. Ados. Orain arte.

Hemendik aurrera, zeozer oker dago. Hitzarmen kolektiboko 24. artikulua dio:



*“...Bankuan urteko lan efektiboko 1.560 orduko ordutegia ezartzen da (oporrak, eta, egoki izanez gero, jai egiteko egunak kenduta). Horietatik Erakundeak urteko 15 ordu arte (edo ordu proportzionalak, lanaldi partzialeko kontratuetan) bideratu ahal izango ditu pertsona bakoitzaren nahitaezko prestakuntzarako, bankuak, prestakuntza batzordearen egitarauaren arabera, lan-egutegiko lan-denboratik kanpo ezarritako ordutegian...”*



15 ORDU! Argi eta garbi. Inork uste du egiten dugun prestakuntza guztia 15 ordutan egin daitekeela? Ez, ez dira nahikoak. Berez, prestakuntzan ordu gehiago ematen ditugu, eta gehiegizko ordu horiek lan orduetatik kanpokoak dira. Gure aisialdiaren kontura dira. Eta orain Europatik 2017ko urtarrilean eta 2018ko urtarrilean indarrean sartuko diren jarraibide berriak datoz, formakuntzarako ahalegin handiagoak eskatuz.



Formakuntza bai, baina gure benetako beharriaz netara egokitutako prestakuntza nahi dugu. Ez dugu nahi lanean nola jantzi behar garen irakasten digun ikastaroaren antzekorik. Halako ahalegina Kutxabankeko langileengan bakarrik ezartzerik ez dugu onartuko. Formakuntza egokiak ahalegin handia eskatzen du, enpresaren aldetik **kontraprestazio egokia eta bidezkoa** behar duena.



Eskatzen hasi eta gero, egin barik ditugun ikastaroei buruzko "oroigarriak" ez ditugu onartuko. 15 orduetako kupoa bete dugu? Bai? Orduan ez dago zer gogoratu.



# Zeuk sinatu...

## neuk helduko diot-eta

Izenburu honi begira iezaiozu, egun batzuk dituen albistearen loturarekin:



**“Popular-eko EREa  
sinatu ez zuten  
sindikalisten  
%90ek baja-planari  
heldu diote”**

Osteguna, 2016ko abenduaren 8a

Zer dio albiste honek, zer esan nahi du? Popularrean izenpetutako akordioa, hain zuzen ere, sindikatu-ordezkaritzaren %86k -CCOO sindikatukoek batez ere- eta bankuak sinatutako akordioa, eta horren bidez 2.592 langileren aurrejubilazioa eta beste desbinkulazio sustatu batzuk aurrera ateratzeko akordioa, alegia. Beste hainbestetan bezala ELA eta LAB sindikatuek, CIG eta CGTrekin batera, akordioari muzin egin zioten. Arrazoia? Bankuak eskaintzen zituen baldintzak ez ziren nahikoak.

**CIG, CGT,  
LAB eta ELA  
sindikatuek  
ez zuten  
akordioa sinatu,  
nahikoa ez zelako**

Aitortu behar dugu, ez dela nabarmentzeko moduko albistea. Beraz, zergatik ekarri hona? Bakarrik aipatzeko sinatzeari uko egin zioten sindikatueta delegatuen %89k, sinatutako EREarekin bat egin zutela. Zehazki talde hauek zituzten 52 ordezkarietatik, 41k doikuntza-planari heldu zioten.

	Ordezkarriak	Bat-egin
ELA	5	4
LAB	11	8
CIG	9	7
CGT	27	22

**CCOO**

Banku barnean zalaparta sortu zuen albistea, izan ere 41 langilek ezin izan zioten doikuntza-planari heldu egondako baja-eskaera guztiengatik, eta euren lekuak akordioa sinatu ez baina enpresak doikuntza-planari heltzeko aukera eman zienean azkar asko sinatu zuten 41 ordezkari horiek bete zituztelako; berriro esanda, nahikotzat jo ez zituzten baldintza horiek akordio batean sinatzeko prest egon ez arren, gero azkar asko akordioaren onurei heldu zieten duda barik.

Albistea dakarren hedabidea dela-eta, paradoxa ematen du, baina Kutxabankeko ikuspuntutik begiratzen badugu, ez zaigu oso berria iruditzen aurretik ere horrelako zerbait bizi izan dugulako. Talde hauen jarrera dagoeneko gaituta dagoen akordio laboralean eta hitzarmen kolektiboan, deskribatutakoaren antzekoa izan da: bustitzeko prest ez, baina onurei heltzeko denborarik galdu gabe ondo eutsi!

# 41

**pertsona kanpoan  
geratu ziren,  
euren lekuak  
akordioa sinatu  
ez zuten ordezkari  
sindikalek bete zituztelako**

Orain hitzarmena berritzeko ordua dator...

**Ze ezusteko ekarriko digu?**

## Hau bai etxearen deskalabrua!

Kutxabanken 80ko urteetako film honen remake bat egin dezakegu, baina une honetan ez litzateke izango komediaren antzean, baizik eta drama, tragedia edo psiko-thriller bat, bakoitzaren esperientziaren arabera.



CCOO

Jar gaitezen egoera horretan. Gure bulegoa berrituko dutela jakin izan dugu ohar baten bidez. Ondo dago, oso ondo. Egia esanez Almodóvarren film baten dekoratua zirudien XXI. mendeko banku sukurtsal bat baino gehiago. Aste gogorak izango dira: bulego osoa hustea, beste lokal batera behin-behineko lekualdaketa, bezeroei jakinaraztea. Ez dio ardurarik, beharrezkoa dena dakigu eta moldatu egingo gara. Antza denez, arazorik gabe, lanak aurrera doaz. Dena ongi ateratzen dela ematen du eta, azkenik, egun batean amaitu dela esaten digute. Laster izango da berrirekitzea; ilusioz beterik, etiketaz janzea ere pentsatzen dugu, Oskarren gala izango balitz bezala.

Egia esanez, polito geratu da. Honaino ondo, bai, baina orain sufrimendua hasten da: sarreraren txirrina ez dabil, beraz, atea irekita utzi behar dugu segurtasun arauen aurka; bezero batek esaten digu atariko baldosa batzuk erori direla; usain txar horiek ere airean daude; mahaien orientazioa desegokia da eta pantailan eguzkia islatzen da; argia ondo ez, telefonoa ere ez... Eguzkia ateratzen denean sauna dela ematen du; Victoria ur-jauzien antzeko ur filtrazioak ditugu; kutxazainak lehengoak dira, lehen ere arazo asko ematen zituztenak, baina margotu berriak dira... Egoera guztiak benetako gertaerak dira. Eta, Kutxabanken, errealitateak fikzioa gainditu lezake.

Baina hau 'alde estetiko' baino ez da, ikusi ikusten dena. Beldurrezko benetako filma ordenagailua pizten dugunean eta itxaroten dugunean hasten da... Ez du funtzionatzen (berriro), edo astiro doa, edota jausi egiten da. CAUT zerbitzuari deitzen diogu eta "Gure linea guztiak okupatuta daude, itxaroteko denbora luzea izan daiteke" entzuten dugu. Aurrean bezeroa dago guk poker aurpegia jartzen. Edo errezikladorea batzuetan zoratzen da Poltergeist-en bezala, eta nahi duena ematen du. Edo kutxazaina ez doa, txartelak irensten ditu,...

**Zekenkeria,  
gorde nahi izan arren,**



**ezin da itsulapikoan sartu**

Ez diegu errua botatzen gure Obretako eta Laguntza Teknikoko lankideei; haiek ez dira arazo hauen errudunak. Egin ere, ahal dutena egiten dute eta beraz, gainontzeko langileen moduko sufritzaileak dira.



Entitateak pilak jarri behar ditu. Gastuei eustea eta aurrezte oso ondo dago. Are gehiago, zorrotasuna txalotzen dugu, baina pasatu gabe. Denak muga bat duelako: edozein lan etxean egin duen batek badaki kalitatea ezin dela jaitsi puntu bat baino gehiago. Zer den zaharkitzearen teknika oso ondo ezagutzen dugu, eta gure ordenagailuek ezin dute eman gehiago. Gure kutxazain askok txatarrarako bakarrik balio dute.

Tresna onak eta fidagarriak behar ditugu. Ezin dugu erasorik egin ezpatekin kanoien aurka, Lord Cardiganen Brigada Arinak bezala. Heroikoa izango da, erromantikoa ere bai, baina, batez ere, alferrekoa. Kontuan hartu, presidente jauna, berton berorrek "gehiago ere egin" dezakeelako.

**Kontuan hartu,  
Presidente jauna,  
berto berorrek  
"gehiago ere egin"  
dezakeelako**



Diru-bilketako administrazio atala (d.a.a.)  
 Urubitarte kalea, 4 - 48001 Bilbao  
 Tfnoa.: 94 424 34 24 - Faxa: 94 424 36 12  
 Helbide elektronikoa: mortega@euskadi.ccoo.es

A KODEA

Afiliazio Alta   
 Datu Aldaketa

CCOOn AFILIATZEKO ESKAERA ORRIA

DATU PERTSONALAK

N.A.N.-A.I.Z.	L	ABIZENAK	IZENA
BIDE M.	BIDEAREN IZENA, ATARIA ETA SOLAIRUA		POSTA KODEA
HERRIA			
JAIOTEGUNA	HERRIALDEA/NAZIONALITATEA	SEXUA	LANBIDEA
TELEFONO FINKOA	TELEFONO MUGIKORRA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	EUSKARA MAILA
			EZ BAXUA ERTAL ALTUA

DATU SINDIKALAK

AFILIAZIO FITXA	ALTAREN ARRAZIOA	ALTAREN JATORRIA	LAN EGOERA
-----------------	------------------	------------------	------------

ENPRESAREN DATUAK

ENPRESAREN I.F.Z.	GIZARTE SEGURANTZAKO ZKIA.	ENPRESA/LANTOKIAREN IZENA
BIDE M.	BIDEAREN IZENA. HERRIA	POSTA KODEA
LANTOKIA		
ENPRESAREN JARDUERA NAGUSIA	FEDERAZIOA	SEKTOREA
LANTOKIKO TELEFONOA	KATEGORIA PROFESIONALA	HITZARMENA
KONTRATU MOTA		

KUDEAKETA DATUAK

KOBRATZEKO MODUA	KOD.	KOBRATZEKO LEHEN HILEA	KUOTA MOTA	KOD.	HILEKO ZENBATEKOAREN
ERAKUNDEAREN ZIGILU ETA SINADURA		BESTE DATU ETA OHAR BATZUK			

Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako Lege Organikoaren arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak CC00ren titulartasuneko fitxategi batetara erantsi direla. Fitxategi hau Baimena ematen diot CC00ko K.S.ari erabilerarekin afiliatuekiko harremana mantentzea da. Zure datuetara sartu, hauek zuzendu, bertan behera utzi eta aurkakotasuna agertu dezakezu, NANaren fotokopiarekin goian aipatutako helbidera idatzi bat bidalita.

ordaindutako kuoten inguruko datuak dagozkion Lurralde Ogasunari emateko, PFEZan zergak arintzeko helburuarekin.

ZORDUNTZE ZUZENENKO HELBIDERATZE AGINDUA SEPA

Helbideratze Agindu honen eskubidea sinatzearekin baimena ematen diozu (A) CC00 Diru-Bilketa Administrazio Atalari zeure finantza entitateari zure kontuan kargatzeko aginduak bidaltzeko eta (B) zure finantza entitateari dagozkion kopuruak zure kontuan kargatzeko CC00 Diru-Bilketa Administrazio Atalaren aginduen arabera. Zure eskubideen parte moduan, zure finantza entitatearekin hitzartutako kontratuko baldintza eta terminoekin bat eginda zure finantza entitateak egindako diru-itzulketa egiteko eskubidea daukazu. Diru-itzulketa hori zure kontuan kargatu denetik 8 asteko epe barruan eska dezakezu.

Zordunaren Datuak

Izena						
Helbidea						
	P.K.	Herria			Herrialdea	
Kontua	Iban	Entitat.	Sukursal.	KD	Kontua	SWIFT BIC
BANKU ENTITAREAREN IZENA					HELBIDEA	

Hartzekodunaren Datuak

Izena	CCOO UNIDAD ADMINISTRATIVA DE RECAUDACIÓN (UAR)
	C/ CARACAS, 6 - 1º EXT. DERECHA. 28010 MADRID (ESPAÑA)

Ordainketa m.	Aldizkakoa	Bakarra	Kontzeptua	Eskaera sinatu den herria	Data
	x		KUOTA SINDIKALA		

NAN edo AIZ Sinadura